


Euskal AEko langabezia-tasa % 5,7ra jaitsi da 2025eko bigarren hiruhilekoan, 18.900 landun gehiagorekin eta 13.200 langabe gutxiagorekin

Azken urtean, landunen kopuruak gora egin du (17.600 pertsona gehiago), eta langabezia-tasak portzentajezko 1,8 puntutan egin du behera (% 7,5etik % 5,7ra)

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko lan-merkatuari buruzko 2025eko bigarren hiruhilekoko datuek islatzen dute aurreko hiruhilekoan baino 18.900 landun gehiago eta 13.200 langabe gutxiago daudela. 2025eko bigarren hiruhilekoan, langabeen kopurua 61.100ekoa izan da, eta landunen zifra 1.010.400era iritsi da.

Euskal AEko langabezia-tasa % 5,7koa izan da, hau da, 2025eko lehen hiruhilekoan lortutakoa baino puntu bat eta hiru hamarren txikiagoa. Landunen eta langabeen kopuruaren bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa (16 urteko eta gehiagoko biztanleria kontuan hartuta) % 56ra iritsi da 2025eko bigarren hiruhilekoan, eta, beraz, aurreko hiruhilekokoaren berdina izan da.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurralde historikoei dagokienez, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, okupazioak gora egin du, eta Bizkaian 9.200 langile gehiago daude, Gipuzkoan 5.100 langile gehiago, eta Araban 4.700 gehiago. Hiriburuen kasuan, Gasteizen 3.900 landun gehiago daude, eta Donostian 2.700 gehiago. Bilbon, berriz, 800 gutxiago daude.

Landunen kopuruaren igoera gizonen zein emakumeen kasuan gertatu da. Gizonen kasuan, 9.900 landun gehiago daude, eta emakumeen kasuan, berriz, 9.000 gehiago. Nazionalitatea kontuan hartuta, Espainiako nazionalitatea duten landunak 13.800 gehiago dira (% 1,5), eta atzerriko nazionalitatea dutenak, berriz, 5.100 gehiago (% 5,3).

Okupazioak gora egin du zerbitzuen sektorean, industrian eta eraikuntzan, eta behera lehen sektorean

Euskal AEko landunen kopuruak gora egin du zerbitzuen sektorean (13.800 landun gehiago, hots, % 1,9ko igoera), industrian (3.400 gehiago, hots, % 1,7ko igoera) eta eraikuntzan (1.900 gehiago, hots, % 3,3ko igoera). Lehen sektorean, berriz, 300 landun gutxiago daude (-% 3,2).

Okupazio-tasa (16-64 urteko landunek adin horietako pertsonen guztizkoan duten ehunekoa) portzentajezko 1,2 puntu igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 71,9ra iritsi da. Tasa hori % 74,2ra iritsi da gizonen kasuan, eta % 69,6ra emakumeen kasuan. Beraz, aurreko hiruhilekoko baina portzentajezko 1,0 eta 1,3 puntu handiagoa izan da, hurrenez hurren. 16-24 urteko gazteen kasuan, okupazio-tasa % 29,4tik % 27,7ra jaitsi da, eta, beraz, aurreko hiruhilekoko baina 1,7 puntu txikiagoa izan da.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik handiena Espainiako nazionalitatea duten pertsonena izan da (% 73,9), eta portzentajezko bederatzi hamarren igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kasuan, berriz, tasa 2,8 puntu igo da, eta % 57,8ra iritsi da.

Lurralde historikoei dagokienez, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoakoa izan da (% 73,6), eta portzentajezko zortzi hamarreneko igoera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Haren atzetik, Arabako tasa % 72,7ra iritsi da, eta portzentajezko 1,6 puntuko igoera izan du. Azkenik, Bizkaiko okupazio-tasak 1,3 puntuko igoera izan du, eta % 70,6ra iritsi da.

Soldatako langileen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 12.300 gehiago dira. Aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, 24.500 pertsona gehiago dira.

Hamar etxetik seik pertsona aktibo guztiak dituzte okupatuta

Zenbatetsitakoaren arabera, 2025eko bigarren hiruhilekoan 927.600 etxe inguru daude Euskal AEn, eta, haietatik, herenak ez du pertsona aktiborik (aurreko hiruhilekoan baina 2.900 etxe gehiagok). Hamar etxetik seitan, pertsona aktibo guztiak daude okupatuta (9.800 familia gehiagotan). Bestalde, etxeko pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 18.600 etxe daude, hots, aurreko hiruhilekoan baina 5.900 gutxiago (% 24ko jaitsiera).

2025eko bigarren hiruhilekoko langabezia-tasa % 5,7koa izan da

Euskal AEko langabeen kopurua (hau da, enplegua bilatzen ari diren, bilaketa-kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta, gainera, lan egiteko prest dauden pertsonen kopurua) 61.100ekoa izan da urteko bigarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baina 13.200 gutxiago). Emakume langabeak 31.700 dira, hau da, 5.100 gutxiago, eta gizon langabeak, berriz, 29.400 dira, hots, 8.200 gutxiago.

2025eko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 5,7koa da, hots, aurreko hiruhilekoko tasa baina portzentajezko 1,3 puntu txikiagoa. Gizonen langabezia tasa portzentajezko

puntu eta erdi jaitsi da, eta % 5,3ra iritsi da. Emakumeena, berriz, puntu bat jaitsi da eta % 6,1era iritsi da. 16-24 urteko gazteen kasuan, langabezia-tasa % 12,4koa izan da, hots, aurreko hiruhilekoko baina portzentajezko sei hamarren txikiagoa.

Nazionalitateari dagokionez, langabeen kopuruak behera egin du Espainiako nazionalitatea duten pertsonen kasuan, eta 8.100 pertsona gutxiago dira (44.500 guztira). Atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan, berriz, langabeen kopurua 16.600ekoa izan da, eta, beraz, 5.100 pertsona gutxiago izan dira.

Lurralde historikoei dagokienez, langabeen kopuruak 6.800 pertsonako jaitsiera izan du Bizkaian, eta 37.400 izan dira. Hortaz, langabezia-tasak portzentajezko 1,3 puntuko jaitsiera izan du, eta % 6,7ra iritsi da. Gipuzkoan, langabeen kopuruak 5.600 pertsonako jaitsiera izan du, eta 14.600 dira guztira. Hortaz, langabezia-tasak portzentajezko 1,6 puntuko jaitsiera izan du, eta % 4,1era iritsi da. Araban, langabeen kopurua 9.100era iritsi da (800 gutxiago), eta langabezia-tasa % 5,6koa izan da, hots, lehen hiruhilekoan baina portzentajezko puntu-erdi txikiagoa.

Hiriburuei dagokienez, Donostian 2.900 langabe gutxiago daude, Gasteizen 1.000 gutxiago eta Bilbon, berriz, 400 gutxiago, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

EUROSTAT - Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2025eko maiatzean urtaroen arabera ez den Europar Batasuneko langabezia-tasa % 5,9koa izan da, eta Espainiakoa, berriz, % 10,8koa.

2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, landunen kopuruak 17.600 pertsonako igoera izan du, eta langabezia-tasa puntu bat eta zortzi hamarren jaitsi da

Azken urtean, 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, landunen kopuruak % 1,8ko igoera izan du, eta 17.600 pertsona gehiago izan dira. Zehazki, zerbitzuen sektorean 9.400 landun gehiago daude, eraikuntzan 4.900 gehiago eta industrian 3.600 gehiago. Nekazaritzan, berriz, 300 pertsona gutxiago daude. Langabeei dagokienez, 19.700 pertsona gutxiago daude langabezia-egoeran Euskal AEn, eta langabezia-tasak portzentajezko puntu bat eta zortzi hamarreneko jaitsiera izan du (% 7,5etik %5,7ra jaitsi da).

Hiruhilekoko afiliatuen % 97,5 lanean ari dira, LANEren irizpidearen arabera

Zenbatetsitakoaren arabera, Euskal AEn 949.800 pertsona daude afiliatuta hiruhilekoan, batez beste, hau da, Euskal AEn bizi diren eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonak, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatuak. Haietatik, % 97,5 landunak dira (926.200 pertsona), BJAk erabiltzen dituen Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpidearen arabera.

BJAren LANE landunetatik, 47.200 (% 4,7) ez daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 38,6 ez daude erregistratutako langabe gisa jasota

Zenbatetsitakoaren arabera, Euskal AEn 84.900 langabe daude Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste (hau da, Euskal AEn bizi diren eta inkesta egin den unean Lanbiden —erregistratutako langabeziako kategoriaren batean— erregistratuta zeuden pertsonak). Haietatik, % 42,6 langabeak dira, LANEren definizioaren arabera (36.200 pertsona). BJAren LANE langabeen % 38,6 ez daude langabe gisa erregistratuta Lanbiden (23.600 pertsona), baina enplegu-eskatzaileen beste kategoria batzuetan egon daitezke.

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2025/II

	2025/II	2025/I	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.911,8	1.904,4	+7,4	+0,4
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.071,5	1.065,8	+5,7	+0,5
Gizonak	552,6	550,9	+1,7	+0,3
Emakumeak	518,9	514,9	+4,0	+0,8
Araba/Álava	164,5	160,6	+3,9	+2,4
Bizkaia	555,0	552,8	+2,2	+0,4
Gipuzkoa	352,0	352,5	-0,5	-0,1
Vitoria-Gasteiz	122,6	119,8	+2,8	+2,3
Bilbao	166,2	167,5	-1,3	-0,8
Donostia / San Sebastian	89,2	89,4	-0,2	-0,2
Beste udalerriak	693,5	689,2	+4,3	+0,6
Espainiarrak	954,0	948,4	+5,6	+0,6
Atzerriko nazionalitatea	117,5	117,4	+0,1	+0,1
BIZTANLERIA LANDUNA	1010,4	991,5	+18,9	+1,9
Gizonak	523,2	513,3	+9,9	+1,9
Emakumeak	487,2	478,2	+9,0	+1,9
Araba/Álava	155,4	150,7	+4,7	+3,1
Bizkaia	517,7	508,5	+9,2	+1,8
Gipuzkoa	337,4	332,3	+5,1	+1,5
Vitoria-Gasteiz	115,8	111,9	+3,9	+3,5
Bilbao	151,7	152,5	-0,8	-0,5
Donostia / San Sebastian	85,7	83,0	+2,7	+3,3
Beste udalerriak	657,3	644,1	+13,2	+2,0
Espainiarrak	909,6	895,8	+13,8	+1,5
Atzerriko nazionalitatea	100,8	95,7	+5,1	+5,3
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	9,2	9,5	-0,3	-3,2
Industria	203,0	199,6	+3,4	+1,7
Eraikuntza	60,3	58,4	+1,9	+3,3
Zerbitzuak	737,9	724,1	+13,8	+1,9
Soldatarioak	841,3	823,5	+17,8	+2,2
- Lan-kontratu mugagabearekin	675,9	663,6	+12,3	+1,9
- - Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	165,3	159,9	+5,4	+3,4
Soldatarik gabeak	169,2	168,0	+1,2	+0,7
BIZTANLERIA LANGABEA	61,1	74,3	-13,2	-17,8
Gizonak	29,4	37,6	-8,2	-21,8
Emakumeak	31,7	36,8	-5,1	-13,9
16 - 24 urte	8,2	9,1	-0,9	-9,9
25 - 44 urte	25,9	31,7	-5,8	-18,3
45 urte eta gehiago	27,0	33,5	-6,5	-19,4
Araba/Álava	9,1	9,9	-0,8	-8,1
Bizkaia	37,4	44,2	-6,8	-15,4
Gipuzkoa	14,6	20,2	-5,6	-27,7
Vitoria-Gasteiz	6,8	7,8	-1,0	-12,8
Bilbao	14,6	15,0	-0,4	-2,7
Donostia / San Sebastian	3,5	6,4	-2,9	-45,3
Beste udalerriak	36,2	45,1	-8,9	-19,7
Espainiarrak	44,5	52,6	-8,1	-15,4
Atzerriko nazionalitatea	16,6	21,7	-5,1	-23,5
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	840,3	838,5	+1,8	+0,2
ETXEGUNEAK	927,6	926,2	+1,4	+0,2
Pertsona aktiboetik familia-etxeak	610,2	611,7	-1,5	-0,2
- Denak okupatuak	561,6	551,8	+9,8	+1,8
- Denak langabeak	18,6	24,5	-5,9	-24,1
Pertsona aktiborik gabeko familia-etxeak	317,4	314,5	+2,9	+0,9

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilekoaren aldakuntza aurreko hiru hilekoaren aldean

Data 2025eko Uztailaren 17a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. Tasa nagusiak. 2025/II

	2025/II	2025/I	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,0	56,0	+0,0
Gizonak	60,2	60,2	+0,0
Emakumeak	52,2	52,0	+0,2
Araba/Álava	57,7	56,6	+1,1
Bizkaia	55,3	55,2	+0,1
Gipuzkoa	56,5	56,9	-0,4
Vitoria-Gasteiz	57,3	56,2	+1,1
Bilbao	55,4	55,9	-0,5
Donostia / San Sebastián	56,3	56,9	-0,6
Beste udalerriak	56,0	55,8	+0,2
Espainiarrak	55,1	55,0	+0,1
Atzerriko nazionalitatea	64,7	65,0	-0,3
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	71,9	70,7	+1,2
Gizonak	74,2	73,2	+1,0
Emakumeak	69,6	68,3	+1,3
Araba/Álava	72,7	71,1	+1,6
Bizkaia	70,6	69,3	+1,3
Gipuzkoa	73,6	72,8	+0,8
Vitoria-Gasteiz	72,2	70,3	+1,9
Bilbao	68,4	68,3	+0,1
Donostia / San Sebastián	74,7	72,6	+2,1
Beste udalerriak	72,3	71,2	+1,1
Espainiarrak	73,9	73,0	+0,9
Atzerriko nazionalitatea	57,8	55,0	+2,8
LANGABEZIA TASA	5,7	7,0	-1,3
Gizonak	5,3	6,8	-1,5
Emakumeak	6,1	7,1	-1,0
16 - 24 urte	12,4	13,0	-0,6
25 - 44 urte	6,1	7,6	-1,5
45 urte eta gehiago	4,6	5,8	-1,2
Araba/Álava	5,6	6,1	-0,5
Bizkaia	6,7	8,0	-1,3
Gipuzkoa	4,1	5,7	-1,6
Vitoria-Gasteiz	5,5	6,5	-1,0
Bilbao	8,8	9,0	-0,2
Donostia / San Sebastián	3,9	7,1	-3,2
Beste udalerriak	5,2	6,5	-1,3
Espainiarrak	4,7	5,5	-0,8
Atzerriko nazionalitatea	14,1	18,5	-4,4
INAKTIBOTASUN TASA	44,0	44,0	+0,0

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarriaren oinarri 1etik populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean

p.p = Aldea portzentajezko puntutan

Data 2025eko Uztailaren 17a

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62